

OVIDIO

Metamorfosiak

Juan Kruz Igerabideren bertsioa

Gure klasikoak bilduma

Erein, 2001

12 urtetik aurrera

MITOLOGIA GREKO-ERROMATARRA GAZTEEN ESKURA

“Gure klasikoak” sailean *Ulises* liburuarekin hasitako ibilbideari jarraipena eman dio Erein argitaletxeak bigarren titulu batekin: Ovidioren *Metamorfosiak* obra sonatuaren egokitzapena.

Ovidio, jakina denez, idazle erromatar klasikoa izan zen: Inperioaren urrezko aroan bizi izan zen, Erroma Augusto enperadorearen agindupean emandako urteetan, hain zuzen ere. Amodioaren inguruko obrak idatzi zituen batik bat, *Remedia amoris* eta *Ars Amatoria*, eta baita hizpide dugun obra ere: *Metamorfosiak*.

Azken obra horretan, Ovidiok Greziatik Erromara iragan ziren mito klasikoek berri eman zuen. Antzinateko sinismenek eraikitako kosmogoniaren azalpena. Irizpide kronologikoa zerabilen, munduaren sorreraren mitoetatik Erroma hiriaren eraikuntza arte, egilearen garaia arte, azken batean. Historia luze bezain interesgarri horren kontakizuna hamabost liburutan zehar egin zuen, eta horiexek dira euskaraz liburu batean bilduta aurkezten zaizkigunak.

Egokitzapen-lanak Juan Kruz Igerabideren eskutik joan dira, eta horretan ere, Ulisesen kasuan gertatzen zen bezala, bada “metamorfosirik”. Izan ere, jatorrian latinezko hexametrotan idatzita zegoena hitz-laura pasatu da, eta gero egin beharreko moldaketak etorri dira. Egokitzailak berak hitzaurrean aitortzen duenez, “Irakurle gazteak mundu klasikoan barneratzeko xedez, alderik narratiboenak hartu eta aldaera irakurterraz samar bat osatzen saiatu naiz (...) irakurlea literatura klasikora hurbiltzeko zubi bat eraikitzea da helburua”.

Eta helburu hori ederki lortuta dagoela uste dut nik: erreferentzia klasikorik apenas duten gazteek aukera paregabea dute mendealeko iruditerian sendo txertaturik dauden elementuen jatorria eta azalpena ezagutzeko. “Edipo konplexua”, “Ariadnaren haria”, “Pigmalion efektua”, “Kupidoren ukitua”, “nartzisismoa” bezalako adierazpideen, edo Disneyren bitartez iritsi zaien Herkules, Neptuno eta besteren zergatia jakiteko parada izango du, *Metamorfosiak* liburuko istorio jakingarrietan barrena.

Manu Lopez Gaseni